

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4824

AGINDUA, 2014ko urriaren 28koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, musika-ikastegientzako diru-laguntzen deialdia egiten duena.

Musika-irakaskuntza arte-irakaskuntzaren erreferente nagusia izan da eta da Euskal Autonomia Erkidegoan. Izan ere, aspaldi ezarriak dira, gure herriarentzat oso erakargarria izan baita jarduera hori, eta batez ere toki-administrazioak (udalak) oso inplikatu dira musika-irakaskuntzaren eskaintzan.

Musika-irakaskuntzak gizartean duen inportantziaren eta udalek egin duten ahaleginaren trukean, Hezkuntza Administrazioak ere arreta berezia eskaini dio musika-irakaskuntzari, eta baliabideak jarri ditu hura antolatzeko, planifikatzeko eta finantzatzeko.

Bestalde, ikasketa horiek gizarteratzeko eta zabaltzeko funtzioa bete du ekimen pribatuak, egoera eta eremu geografiko jakin batzuetan.

Hori horrela, ikasketa horiek Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzea (banaketa espazialari dagokionez nahiz ematen diren eta emango diren ikasketen oreka, maila eta espezialitateei dagokienez) kontuan hartzen duen normalizazio-prozesuaren isla izan nahi du aurrekontuak.

Zentro musikalak direla eta, musika eskola hauen helburu nagusia da tradizioan oinarritutako dantza eta musikaren alorretan prestakuntza praktikoa ematea eta gaitasun eta bokazio berezia erakusten dituztenak lanbide-irakastetarako prestatzea. Kontserbatorioek eta baimena duten zenitroek irakaskuntza arautuaren eskaintzarekin laguntzen dute.

Horrela, bada, musika-ikastegientzat prestatu da Agindu hau, diru-laguntzak eska ditzaten. Helburua da ikastegiok mantentzen laguntzea eta, ondorioz, adierazitako helburuak betetzea.

Eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espeditenak aurretiaz izapidetzea arautzen duen Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduan ezarritakoa oinarri hartuta, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Helburua.

Diru-laguntzen deialdia egitea urriaren 27ko 289/1992 Dekretuak araututako musika-eskolentzat, udal-titularitateko kontserbatorioentzat eta ikastegi baimenduentzat, 2014ko ekitaldi ekonomikoko langile-gastuak finantzatze aldera.

2. artikulua.– Kreditu erabilgarria.

Helburu hori betetzeko, gehienez ere, 8.629.962 euro emango dira, bi laguntza-sailetan banatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura.

a) 8.358.383 euro, % 25eko udal-finantziazioa edo handiagoa duten musika-ikastegientzat.

b) 271.579 euro, gainerako ikastegientzat.

Diru-zenbateko hori handitu ahal izango da. Horretarako, aintzat hartuko da zein den eskatzen diren laguntzen zenbateko osoa, kontuan hartuta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren beste laguntza-programa batzuk abian jarri eta gero, zenbat diru geratu den aurrekontuan agortu gabe eta deialdia ebatzi aurretik. Nolanahi ere, holakorik gertatuz gero, Eusko Herriko Agintaritzaren Aldizkarian horren berri emango da Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpen bidez.

3. artikulua.– Onuradunak.

1.– Agindu honen bidez iragarritako diru-laguntzak, 2. artikulua a) atalean adierazitako zenbatekoa dutenak, honako musika-ikastegi hauentzat izango dira, tokiko herri-administrazioek % 25etik gora finantzatuta:

a) Titularitate publikoa edo pribatua duten musika-eskolak, arautu gabeko irakaskuntza emateko baimena dutenak eta urriaren 27ko 289/1992 Dekretuak arautuak; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoan «Musika-Eskola» direlako arautu gabeko berariazko musika-irakaskuntzarako ikastetxeak sortu eta jardunean jartzeko balio izango duten oinarritzko arauak ezartzen ditu (EHAA, 1993ko urtarrilaren 4koa).

b) Titularitate publikoa duten kontserbatorioak, irakaskuntza arautua emateko baimena dutenak, abenduaren 11ko 229/2007 Dekretuaren arabera; Dekretu horren bidez ezartzen da musika-ikas-keta profesionalen curriculuma eta ikasketa horietan sartzeko probak. (EHHA, 2008ko martxoaren 13koa).

2.– Agindu honen bidez iragarritako diru-laguntzak, bigarren oinarriaren b) atalean adierazitako zenbatekoa dutenak, honako musika-ikastegi hauentzat dira (tokiko herri-administrazioek finantzatzen ez badute % 25 edo hortik gora):

a) Titularitate publiko edo pribatua duten musika-eskolak, urriaren 27ko 289/1992 Dekretuak arautuak, dagokion baimena badute arautu gabeko irakaskuntza emateko; Dekretu horrek, Euskal Autonomia Erkidegoan «Musika-Eskola» direlako arautu gabeko berariazko musika-irakaskuntzarako ikastetxeak sortu eta jardunean jartzeko balio izango duten oinarritzko arauak ezartzen ditu; (EHAA, 1993ko urtarrilaren 4koa).

b) Abenduaren 11ko 229/2007 Dekretuak araututako irakaskuntzak ematen dituzten ikastegi baimenduak; Dekretu horren bidez ezartzen da musika-ikasketa profesionalen curriculuma eta ikasketa horietan sartzeko probak. (EHHA, 2008ko martxoaren 13koa).

4. artikulua.– Baldintzak eta egiaztatzeko modua.

1.– Diru-laguntza lortzeko, eskatzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) 3. artikuluan adierazitako ikastegietako bat izatea. Egiaztapen hori ofizioz egingo da.

b) Ez izatea diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko debekurik zigor- eta administrazio-arloan, eta ez izatea laguntzak jasotzeko legezko debekurik, ezta sexu-bereizkeriagatik debekurik ere, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakume eta Gizonen Berdintasunari buruzkoak, azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoaren arabera.

c) Erakunde pribatuek egunean egon beharko dute zerga-betebeharretan, Ogasun eta Finantza sailburuak 1991ko urriaren 7an emandako Aginduan ezarritakoaren arabera hala badagokie (EHAA, 1991ko urriaren 15koa) eta Gizarte Segurantzarekikoetan indarrean dauden xedapenak betez.

2.– Organo kudeatzaileak automatikoki eta behar bezainbeste aldiz egiaztatuko du ea zergei eta gizarte-segurantzari dagozkion betebeharrak betetzen dituzten laguntza-eskatzaileek, haien baimenik behar izan gabe, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateratua onartzen duen 1/1997 Dekretu Legegilea (azaroaren 11koa), bere 50.3 artikuluan, betez.

3.– Betebehar hauek egiaztatuko dira eskaeran, erantzukizunpeko adierazpen bidez:

- Ikastegiak gutxienez % 25eko edo hortik gorako finantziazioa izatea edo ez izatea.
- Ebazpenean kontuan hartutako zirkunstantzien edozein aldaketa jakinarazteko konpromisoa hartzea.
- Pertsona edo entitate eskatzaileak diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galteza dakarren zigor edo administrazio-arloko zigorrik ez izatea.
- Eta laguntza horiek jasotzeko ezgaitzen duen lege-debekuen eraginpean ez izatea, beren beregi Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko azken xedape-netako seigarrenaren arabera sexu-diskriminazioa egin izanagatiko lege-debekuen eraginpean.
- Eskaerako eta harekin batera doan dokumentazioko datuak egiazkoak izatea, eta
- Betetzea laguntza horiek jaso ahal izateko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak.

5. artikulua.– Eskaerak aurkezteko izapidetzea.

1.– Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan eta E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa –PLATEA– onartzen duen otsailaren 9ko Ebazpenean (Informatika eta Teknologiko zuzendariak emana) araututa dago izapidetze elektronikoa. Honako dokumentazioa honi jarraituz, helbide elektronikoa honetan daude eskaerak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak aurrez aurre nahiz bide elektronikoa erabiliz izapidetzeko argibideak: https://www.euskadi.net/zerbitzu_elkartzea/2014/musika-ikastegiak/y22-izapide/eu

2.– Baliabide elektronikoa erabiliz egin ahal izango dituzte ikastegi interesatuek eskaerak, kontsultak eta prozedura honetako izapide guztiak, emateko edo ukatzeko ebazpena jaso arte. Justifikazioaren tramiteak ere era berean egin ahal izango dira.

Era berean, eskaerak bide elektronikoa erabiliz aurkeztu ahal izango dira euskadi.net-en egoitza elektronikoa: https://www.euskadi.net/zerbitzu_elkartzea/2014/musika-ikastegiak/y22-izapide/eu

3.– Bide elektronikoa erabiliz gero, helbide honetan egin ahal izango dira eskaera ematearen ondoko izapideak, hau da dokumentazioa zuzentzea eta espedientearen errebisioa: <https://www.euskadi.net/niregestioak>

4.– Eskaerak aurrez aurre ere egin ahal izango dira, Herritarren Arretarako Bulegoetan, Zuzenean, Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetan, edota Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako organoetan, behar bezala betetako instantzia normalizatuen bitartez. Eskaera-eredua euskadi.net-en egoitza elektronikoa honetan eskuratu ahal izango da: https://www.euskadi.net/zerbitzu_elkartzea/2014/musika-ikastegiak/y22-izapide/eu

5.– Eskaera bat izapidetzeko eta dokumentazioa ekartzeko bide bat erabiltzeak, aurrez aurrekoa izan edo elektronikoa izan, ez dakar nahitaez bide hori bera erabiltzea hurrengo izapideak egiteko, eta edozein unetan aldatu ahal izango da.

6. artikulua.– Eskaerak eta dokumentazioa.

Eskaera betetzeaz gain, eta 17. artikuluan zehaztutako izan daitezkeen hobariak lortu ahal izateko, % 25eko udal-finantziarioa edo handiagoa duten musika-ikastegietako titularrek edo ordezkariak eskaera I. eranskinari jarraituz aurkeztu beharko dute; beste zentroetako titularrek edo ordezkariak II. eranskinari jarraitu behar izango diote. Honez gain, dokumentazio hau ekarri beharko dute:

1.– Musika-eskoletarako dokumentazio hau ekarri beharko dute:

a) «Musika-eskolako irakasleak» izeneko ziurtagiria. Ziurtagiri horretan irakasle guztien izenak eta berauek irakasten emandako denbora asteka adierazita agertuko dira. Irakas-denbora zuzena da irakasleek ikasturte osorako dagozkien ikasleei irakasten emandako denbora (III. eranskina).

b) «Lehenetasuna duten espezialitateentzako laguntza / erregimen arrunteko ikasleak» izeneko ziurtagiria, behar izanez gero. Ziurtagiri horretan, 2013-2014ko erregimen arrunteko ikasleen zerrenda jasoko da, lehenetsitako espezialitateetan matrikulatuta daudenak (IV. eranskina).

c) «Laguntza berezia hartzen duten ikasleak eta haien espezialitateak» izeneko ziurtagiria, behar izanez gero. Ziurtagiri horretan, 2013-2014an erregimen berezian egondako ikasleen zerrenda jasoko da, eta x baten bidez agertuko dira lehenetsitako espezialitateak. Ziurtagiri horren kopia bat helaraziko zaio Ikuskaritzari (V. eranskina).

d) «Ikasleak irakaskuntza arautuan sartzeari (ikasketa-profesionalak)» izeneko ziurtagiria, behar izanez gero. Ziurtagiri horretan, 2013-2014an ikasketa profesionalean izena eman duten ikasleen zerrenda jasoko da (VI. eranskina).

e) «Aplikaziorako datuen laburpena» izeneko ziurtagiria. Ziurtagiri horretan irakasleen eta ikasleen datu orokorrak, 2013-2014ko ikasturtekoak, agertuko dira laburpen gisa eta aplikazioan, tresna gisa erabiltzen dena deialdia ebazteko, sartuko dira. (VII. eranskina). Datu hauek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak jasotzen dituen zenbakiak bezalakoak izan behar dira eta inoiz ere ez handiagoak. Desberdinak izanez gero, kudeatzaileak azkeneko hauek, hau da Sailak jasotakoak, kontuan hartuko ditu.

2.– Irakaskuntza arautua ematen duten zentroetarako honako dokumentazio hau ekarriko dira:

a) «Irakasleak» izeneko ziurtagiria. Ziurtagiri horretan irakaskuntza arautuan klaseak ematen dituzten irakasle guztien izenak agertuko dira eta berauek irakasten emandako denbora asteka adierazita. Irakas-denbora zuzena da irakasleek ikasturte osorako dagozkien ikasleei irakasten emandako denbora (VIII. eranskina).

b) «Lehenetasuna duten espezialitateentzako laguntza» izeneko ziurtagiria, behar izanez gero. Ziurtagiri horretan, 2013-2014ko ikasleen zerrenda jasoko da, lehenetsitako espezialitateetan matrikulatuta daudenak (IX. eranskina).

c) «Ikasleak goi-mailako irakaskuntzan sartzeari» izeneko ziurtagiria, behar izanez gero. Ziurtagiri horretan, 2013-2014an goi-mailako musika-eskola batean izena eman duten ikasleen zerrenda jasoko da (X. eranskina).

d) «Aplikaziorako datuen laburpena» izeneko ziurtagiria. Ziurtagiri horretan irakaskuntza arautuaren irakasleen eta ikasleen datu orokorrak, 2013-2014ko ikasturtekoak, agertuko dira laburpen gisa eta aplikazioan, tresna gisa erabiltzen dena deialdia ebazteko, sartuko dira (XI. eranskina). Datu hauek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak jasotzen dituen zenbakiak bezalakoak izan behar dira eta inoiz ere ez handiagoak. Desberdinak izanez gero, kudeatzaileak azkeneko hauek, hau da Sailak jasotakoak, kontuan hartuko ditu.

3.– Ikastegi guztiek 2013rako aurrekontua jasotzen duen ziurtagiria erantsiko dute (XII eranskina).

4.– % 25etik gorako udal-finantziazioa duten ikastegi guztiek ziurtagiri bat erantsiko dute, 2013an udalak edo udalek egindako guztizko ekarpena jasotzen duena (XIII eranskina).

5.– Ikastegi guztiek izandako gastuen justifikazioa modu honetan aurkeztu beharko dute:

a) Justifikazioan, langileen zerranda eta langileen kostuen justifikazioa adieraziko dira (XIV eranskina).

b) Ikastegi guztiek arestian aipatutako langileen kontratuen kopiak edo Gizarte Segurantzaren alta eman izanaren ziurtagiriak aurkeztuko dituzte, edo TC agiriak, edo berauen baliokideak, langile horien lan-egoera normalizatuaren froga gisa. Jatorrizko agiriak entitate onuradunaren egoitzan gordailuan izango dira. Ikastetxeen Zuzendaritza arduratuko da agiriok egiaztatzeaz.

c) Agiri horien bidez, 2014ko ekitaldian egindako gastuak justifikatu beharko dira.

d) Era berean, justifikazioak elektronikoki aurkeztu ahal izango dira, <https://www.euskadi.net/niregestioak> helbidean.

6.– Ziurtagiri horien ereduak hemen eskura daitezke: <https://www.euskadi.net>

7.– Eskaera-inprimakia eta erantsitako agiriak eskaera egiten duen erakundeko titularrak edo ordezkariak sinatuta eta data jarrita aurkeztu behar dira.

7. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabidea eta dokumentazioa aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

8. artikulua.– Eskabidea eta dokumentazioa zuzentzea.

Eskabideak baldintzak betetzen ez baditu, eskatzaileari 10 eguneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko, eta adierazi egingo zaio, hori egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, eta ebazpen bat emango da horren berri emateko.

9. artikulua.– Laguntzak kudeatzeko organoa.

Ikastetxeen zuzendariak kudeatuko ditu deialdi honetan aurreikusitako laguntzak.

10. artikulua.– Diru-laguntzak emateko prozedura.

Laguntza-sail bakoitzerako:

1.– Eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztiei emango zaie diru-laguntza. Horretarako, deialdi honetarako dagoen kreditua hainbanatu egingo da diru-laguntzaren eskatu eta baldintzak betetzen dituztenen artean.

2.– Ikastetxe bakoitzari zenbateko diru-laguntza dagokion kalkulatzeko, kontuan hartuko da ordu finantzarrien kopurua; horretarako, Agindu honetako baremoetan (17. artikuluan jasoak) ezarritako irizpideak aplikatuko dira, eta, gero, diru-laguntza honetarako dagoen zenbateko osoa hainbanatu egingo da diru-laguntza eskatu eta baldintzak betetzen dituztenen artean.

3.– Nolanahi ere, musika-ikastegi bakoitzari ematen zaion diru-laguntzak egundo ere ez du gaindituko aurrekontu orokorraren % 33. Ondorio horietarako, irakasle ez diren langileen gastuen eta ekipamendu- eta funtzionamendu-gastuen aurrekontu osoaren % 25 kontabilizatuko da, gehiezez ere.

4.– Finantza daitezkeen orduen ondorioz ateratzen den diru-laguntzak muga hori gainditzen badu, gainerako eskolen diru-laguntzetara bideratuko da soberakina.

11. artikulua.– Ebazpena, errekursoak, ebazteko eta jakinarazteko epeak, jakinarazteko modua eta publizitate-prozedura.

1.– Hezkuntzako sailburuordeak ebazpena eman eta jakinarazteko gehienez ere sei hilabeteko epea izango du, Agindu hau argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita. Ebazpen horretan eskatutako diru-laguntzak eman ala ez erabakiko da, deialdiaren xedeari begira ezarritako diru-laguntza lerroak kontuan izanik. Emandako diru-laguntzen kasuan honako hauek adieraziko dira: erakunde onuraduna, dagokion musika-ikastetxea eta emandako diru-laguntzaren kopurua. Laguntza ematen ez den kasuetan ukatzeko arrazoia jasoko da. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da erakunde interesdunei jakinarazteko.

2.– Ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabete bateko epean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluei jarraikiz.

3.– Epea igaro eta ebazpenik argitaratu ez bada, diru-laguntzaren eskabidea ezetsi egin dela ulertu beharko dute interesdunek, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1. artikuluan xedatutako ondorioetarako.

4.– Erakunde onuradunek ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntza batzuk jaso badiuzte Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren edo haren erakunde autonomoen eskutik, eta laguntza horien inguruko itzulera- edo zigor-prozesuren bat izapidetzen ari bada, prozesu horrek amaituta egon behar du erakunde horiei diru-laguntza hau esleitzeko edo esleituta dutenei dagokiena ordaintzeko.

12. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzea.

Ikastegiei emandako diru-laguntza ordainketa bakar baten bidez gauzatuko da, laguntza emateko ebazpena jakinarazi ondoren, baldin eta onuradunak uko egiten ez badio 14.1 artikuluan ezarritako epean.

13. artikulua.– Diru-laguntza itzultzea.

Diru-laguntza ematea eragin zuen baldintzaren bat ez dela betetzen egiaztatuz gero, zenbaitekoak eta legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, betiere ondoko arauetan ezarritako zehaztapenekin bat etorriaz: azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua.

14. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bate-ginaren 50.2 artikuluan jasotako eginbide orokorrak betetzeari utzi gabe, agindu honetan araututako diru-laguntzen onuradunek eginbide hauek bete beharko dituzte kasu guztietan:

1.– Emandako diru-laguntza onartzea. Ildo horretatik, ebazpena EHAAan argitaratu eta hamaikabost egunen buruan interesdunek beren beregi eta idatziz diru-laguntzari uko egiten ez badiote, onartutzat hartuko da.

2.– Diru-laguntza zertarako eman, horretarako erabiltzea, ez beste ezertarako.

3.– Hezkuntza Ikuskaritzaren esku jartzea diru-laguntza eskatzeko aurkeztutako dokumentazioa eta euskarri gisa erabilitakoa, gainbegiratu edo ikuskatu beharreko beste elementu bat baita.

4.– Ekonomia Kontrolerako Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari jakinaraztea eskatutako informazioa, deialdi honetan jasotako diru-laguntzei buruzkoa.

5.– Helburu bererako beste diru-laguntza edo laguntzarik lortuz gero, diru-laguntza ematen duen Administrazioari jakinaraztea.

15. artikulua.– Bateragarritasun-erregimena.

Agindu honen bidez iragarritako diru-laguntzak bateragarri dira beste edozein erakunde publiko zein pribatuk helburu berberarekin eman ditzakeen beste zeinahirekin. Aurrekoa gorabehera, gutzizko kostua baino handiagoa baldin bada helburu horretarako eskuratu diren laguntzen gutzizko kopurua, deialdi honen kariatara emandako laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, soberakin horri dagokion neurrian.

16. artikulua.– Datu pertsonalak.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonalen Fitxategi Publikoei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorritik, deialdi honetan parte hartzen dutenek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatzeko eta argitaratzeko. Datuok «Musika-eskolentzako diru-laguntzak» izeneko fitxategi batean sartuko dira, deialdi hau kudeatzeko eta deialdiaren berri emateko bertan parte hartzen dutenei. Ikastetxeen Zuzendaritza da fitxategi horren arduraduna. Datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, ezeztatzeko eta haien aurka egiteko eskubideez baliatzeko, Ikastetxeen Zuzendaritzara jo beharko da, honako helbide honetara: Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

Era berean, deialdi honetan parte hartzen duten pertsonak baimena ematen diote Ikastetxeen Zuzendaritzari, aurkeztutako dokumentuak egiazkoak diren beste erakunde publiko batzuetan frogatzeko.

17. artikulua.– Baremoak.

I. Baremoa:

Arautu gabeko irakaskuntza:

A) Ikasleka, maila eta atal hauetan matrikulatutako ikasle-kopuruaren arabera, irakas-denbora hauek jasoko dute laguntza.

a) Finantza daitezkeen denborak:

1. maila, edo lehen harremana hasteko maila:

Urte naturalean 5 urte edo gutxiago duten ikasleak		5 minutu, ikasle bakoitzeko
Urte naturalean 6 edo 7 urte duten ikasleak		15 minutu, ikasle bakoitzeko

2. maila:

Hastapeneko kurtsoan, zuzenak diren matrikulazioak bakarrik agertuko dira; horrek esan nahi du 1. maila egin ez dutenak.

Hastapeneko kurtsoa		20 minutu, ikasle bakoitzeko
Ikasle arruntak: musika tresna edo bakarkako kantua	Kurtso guztietan	50 minutu, ikasle bakoitzeko
Maila honetan, musika tresna eta/edo bakarkako kantuan matrikulatutako ikasleen % 15ek jasoko du laguntza berezia, gehienez ere	Bi ikasturtez soilik	90 minutu, ikasle bakoitzeko
Koru-kantua irakasgai nagusizat	1. kurtsoa	15 minutu, ikasle bakoitzeko
Koru-kantua irakasgai nagusizat	beste kurtso guztiak	5 minutu, ikasle bakoitzeko
Dantza tradizionala bakarrik	6 kurtso gehienez ere	10 minutu, ikasle bakoitzeko
Bi espezialitate egiten duten ikasleak. ere.	Maila honetako ikasle kopuru osoaren % 10 gehienez	30 minutu, ikasle bakoitzeko

3. maila:

Musika-tresna edo bakarkako kantua	6 kurtso, gehienez ere	40 minutu, ikasle bakoitzeko
Talde-jarduerak soilik	6 kurtso, gehienez ere	5 minutu ikasle bakoitzeko
Maila honetan, musika-tresna eta/edo bakarkako kantuan matrikulatutako ikasleen % 10ek jasoko du laguntza berezia, gehienez ere	Bi ikasturtez soilik	120 minutu, ikasle bakoitzeko
Dantza tradizionala bakarrik	6 kurtso, gehienez ere	10 minutu, ikasle bakoitzeko
Bi espezialitate egiten duten ikasleak.	Maila honetako ikasle kopuru osoaren % 10 gehienez ere.	30 minutu ikasle bakoitzeko

4. maila:

Talde-jarduerak soilik	Kurtso guztiak	15 minutu, ikasle bakoitzeko
Ohiko matrikulazioan musika tresna edo bakarkako kantua. Maila honetako ikasle kopuru osoaren % 10 gehienez ere.	6 kurtso, gehienez ere	30 minuto ikasle bakoitzeko.

Beste ikasketa batzuk:

Bakarrik pertsona minusbaliatuetarako, beste mailetan ez daudenak:

Minusbaliatuak	14 urteak arte	20 minutu, ikasle bakoitzeko
Minusbaliatuak	14 urtetik gorakoak	10 minutu, ikasle bakoitzeko

Alderik badago maila hauetatik ateratako irakas-denbora finantzagarriaren eta irakasleentzat kontratatutako guztizko irakas-denbora zuzenaren artean (III. eranskinean datorrena), bien arteko denborarik laburrena lehenetsiko da. Hauxe denbora finantzagarritzat aukeratutako denbora izango da, eta hurrengo bi hobariak gehituko zaizkio.

B) Lehentasunezko interesa duten espezialitateen laguntza.

Irakaskuntza arautu gabeen musika-tresnak ikasten dituen ikasle bakoitzeko, 2. eta 3. mailan, 30 minutuko hobaria emango da, eta, laguntza berezia jasotzen duen ikasle bakoitzeko, 2. eta 3. mailan baita ere, 60 minutukoa.

Lehentasunezko interesa duten musika-tresnak hauek dira: biola, biolontxelo, kontrabaxua, fagota, oboea, tronpa, tronboia, tuba eta harpa.

C) Ikasleak irakaskuntza arautuan sartzea.

Finantziarioa era honetan emango da, 2013-2014 ikasturtean musika-irakaskuntza profesionaletan eman duen ikasle bakoitzeko: I. baremoko guztizko denborei 300 minutu gehituko zaizkie,

Gehienez ere, joan den ikasturtean, 2. eta 3. mailan matrikulatuta dauden laguntza berezia hartzen duten ikasleen zenbakiaren 50% finantzatu ahal izango dira.

D) A, B eta C ataletan ezarritako irizpideen batura izango da laguntza jasoko duten orduen guztizko kopurua.

II. Baremoa:

Irakaskuntza arautua:

A) Denbora hauei emango zaie laguntza, irakaskuntza mota honetan matrikulatutako ikasle bakoitzeko:

a) Finantza daitezkeen denborak:

Oinarrizko maila	1., 2., 3. eta 4. kurtsoak	50 minutu, ikasle bakoitzeko
Maila profesionala	1. eta 2. kurtsoak	125 minutu, ikasle bakoitzeko
Maila profesionala	3. eta 4. kurtsoak	160 minutu, ikasle bakoitzeko
Maila profesionala	5. eta 6. kurtsoak	175 minutu, ikasle bakoitzeko

Alderik badago maila hauetatik ateratako irakas-denbora finantzagarriaren eta irakasleentzat kontratatutako guztizko irakas-denbora zuzenaren artean (VIII. eranskinean datorrena), bien arteko denborarik laburrena lehenetsiko da. Hauxe denbora finantzagarritzat aukeratutako denbora izango da, eta hurrengo bi hobariak gehituko zaizkio.

B) Era berean, I. baremoaren B atalean jasotako espezialitateei emango zaie laguntza, eta 30 minutuko hobaria emango zaie oinarrizko irakaskuntzako ikasleei, eta 60 minutukoa, berriz, musika-tresna horiek ikasten dituzten eta irakaskuntza arautuko maila profesionalean ikasten dutenei.

C) 400 minutu gehituko dira hezkuntza-antolamendu berriko goi-mailako musika-eskola batean 2013-2014an matrikulatutako ikasle bakoitzeko.

D) A, B eta C ataletan ezarritako irizpideen batura izango da laguntza jasoko duten orduen guztizko kopurua.

III. Baremoa:

Irakaskuntzaren kostua.

Orduko batez besteko kostua izango da ekitaldi ekonomikoaren guztizko kostua zati astean emandako eskola-orduen kopurua (irakas-denbora zuzena). I. eta II. baremoetako diruz lagundu daitekeen eskola-ordu bakoitzeko –hau da, finantzagarriztat aukeratutako denborako– ehuneko jakin bat aplikatuko da kostuaren arabera, honako taula hau kontuan hartuta:

Orduko kostuetan aplikatu beharreko ehunekoa:

1.436 euro baino gehiago asteko eskola-ordu bakoitzeko: % 30.

1.285 euro-tik 1.435 eurora asteko eskola-ordu bakoitzeko: % 28.

1.136 euro-tik 1.284 eurora asteko eskola-ordu bakoitzeko: % 24.

979 euro-tik 1.135 eurora asteko eskola-ordu bakoitzeko: % 18.

Gehienez ere 978 euro asteko eskola-ordu bakoitzeko: 0.

Horretarako, gehienez ere guztizko aurrekontuaren % 25, irakasle ez diren langileen gastuak, eta ekipamenduaren eta funtzionamenduaren guztizko gastua kontabilizatuko da.

IV. Baremoa:

Udal-finantziazioa.

Tokiko udalbatzak zentroaren gastu arruntaren % 25 gutxienez finantzatzen duen kasuetan, ehuneko hauek aplikatuko zaizkie I. eta II. baremoetako diruz-lagundu daitekeen eskola-ordu bakoitzeko –hau da, finantzagarriztat aukeratutako denborako–

– % 25eko finantziazioa izateagatik, orduen % 25.

– % 25etik % 62,5era arteko finantziazioa izateagatik, % 2 gehiago puntu edo frakzio bakoitzeko, ordu horien % 100eraino iritsi arte.

Udalaren edo udalen ziurtagiria, ekarpen hori ziurtatzen dena, eta XIII eranskina betetzeko euskarri gisa balioko dena, zentroan gorde behar izango da, geroko errebisioetarako.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren pentzutan egingo diren gastu espedienteak aurrez izapidetzeari buruzko Ogasun eta Herri Administrazioaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikuluan aipatzen diren ondorioetako, Euskal Autonomia erkidegoaren 2015. urteko aurrekontu orokorretan behar besteko ordainketa eta konpromiso-kreditu egoki egoitearen baldintzapean gelditzen da agindu honetan aipatzen diren laguntzen ebazpena.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Prozedura-gaietan agindu honek arautzen ez dituen gaietan, osagarri moduan aplikatuko dira Euskal Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina –azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak aldatua– eta azaroaren 26ko 30/1992 Legea, hau da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango diote Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabe-

2014ko azaroaren 12a, asteazkena

teko epean, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, Agindua aldizkari ofizial horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 28a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

Abisuak jasotzeko datuak

Helbide elektronikoa edo SMS bidezko doako abisuen sistema erabili dezakezu. Sistemak abisatu egingo dizu jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen zaizun bakoitzean.

Helbide elektronikoa edo telefono-zenbaki bat baino gehiago eman ez gero, bereiz itzazu puntu eta koma bidez [;].

Helbide elektronikoa: _____

SMSa: _____

Erantzukizunpeko adierazpenak**Bateragarritasun-adierazpenak**

Erakunde eskatzailea(k):

- Ez da laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin administrazio publikoen edo erakunde pribatuen eskutik.
- Administrazio publiko edo erakunde pribatuen bati laguntza eskatu dio xede eta helburu berarekin eta eman egin dio (atal honetako datuak Eranskinean zehaztu beharko dituzu).
- Administrazio publiko edo erakunde pribatuen bati laguntza eskatu dio xede eta helburu berarekin, baina erantzunaren zain dago (atal honetako datuak Eranskinean zehaztu beharko dituzu).

Berariazko adierazpenak

Erakunde eskatzailea(k):

- **Erakunde eskatzaileak %25eko edo gehiagoko udal finantziarioa jasotzen duela.**
- Diru-laguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatuz gero, horren berri emateko konpromisoa hartzen dut.

Bestelako adierazpenak

Aitortzen dut:

- Erakunde eskatzailea(k):
 - Ez dauka diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor penal edo administratiborik.
 - Ez dago diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko gaitasunik gabe uzten duten lege-debekuen eraginpean, beren-beregi sexu-diskriminazioagatiko¹ lege-debekuen eraginpean.
 - Egunean ditu indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, arauz zehaztu bezala².
 - Betetzen ditu indarreko legediak laguntza hauek jasotzeko ezarritako baldintzak.
- Benetakoak dira eskabide honetan eta erantsitako dokumentuetan jasotako datuak.

¹ Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak seigarren azken xedapenean dioenaren arabera.

² 1/1997 Dekretuaren arabera, deialdia kudeatzen duen organoak berariazko baimenik gabe egiaztatuta ahal izango du erakunde eskatzaileak egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

_____ (e)n _____ (e)an
(Tokia) (Data)

(Ordezkararen sinadura)

Eskabidea osatzeko argibideak

Eskatzailea

Zure izenean ari bazara:

- *Eskatzailea* atalean, aukeratu ezazu *Titularra*.
- *Datu pertsonalak* atalean, bete itzazu *titularri* dagozkion datuak.
- Sina ezazu eskabidea.

Beste pertsona baten ordezkari gisa ari bazara:

- *Eskatzailea* atalean, aukeratu ezazu *Ordezkaria*.
- *Datu pertsonalak* atalean, bete itzazu ordezkatzan duzun pertsonaren datuak *Titularra* atalean, eta zureak *Ordezkaria* atalean.
- Sina ezazu eskabidea.

Erakundeak beti ordezkari baten bidez aritzen dira, hortaz:

- *Eskatzailea* atalean, aukeratu ezazu *Ordezkaria*.
- *Datu pertsonalak* atalean, bete ezazu *Titularra* atala erakundearen datuekin eta *Ordezkaria* atala zure datuekin.
- Sina ezazu eskabidea.

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

Jakinarazpen eta komunikazioak jasotzeko, aukera hauek dituzu:

Posta bidezkoa: *Posta bidezkoa* atalean jarri duzun helbidera igorriko dira.

Elektronikoa: [Nire kudeaketak](#) guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Han sartzeko, [onartutako ziurtagiri elektronikoa](#) bat izan behar duzu.

Oharra: 10 eguneko epea duzu jakinarazpena sartzeko; bestela, jakinarazpena errefusatzat joko da, izapidea egintzat emango da eta prozedurak aurrera egingo du.

2014ko azaroaren 12a, asteazkena

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hezkuntza Sailburuordetza
Ikastetxeen ZuzendaritzaDEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Educación
Dirección de Centros Escolares

Eskabidea

%25 BAINO GUTXIAGOKO FINANTZIAZIOA DUTEN MUSIKA-IKASTEGIEI DIRU-LAGUNTZAK

(*) nahitaezko eremuak

Eskatzailea *

 Titularra Ordezkarria

Datu pertsonalak

Titularra

Izena / Erakundearen izena *

Telefonoa

Lehen abizena

Bigarren abizena

Sexua Gizona

Identifikazio-dokumentua *

Zenbakia *

 Emakumea

Zein lurralde/probintzian daude erakunde eskatzailearen datu fiskalak *

Ordezkarria

Izena / Erakundearen izena *

Telefonoa

Lehen abizena

Bigarren abizena

Sexua Gizona

Identifikazio-dokumentua *

Zenbakia *

 Emakumea

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala *

Posta bidezkoa

Helbidea *

Zk. _____ Sol. _____ Letra _____

PK *

Udalerrria *

Probintzia *

Herrialdea * ESPAINIA

Elektronikoa

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza *

 Euskara Gaztelania

Abisuak jasotzeko datuak

Helbide elektroniko edo SMS bidezko doako abisuen sistema erabili dezakezu. Sistemak abisatu egingo dizu jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen zaizun bakoitzean.

Helbide elektroniko edo telefono-zenbaki bat baino gehiago eman ez gero, bereiz itzazu puntu eta koma bidez [;].

Helbide elektronikoa: _____

SMSa: _____

Erantzukizunpeko adierazpenak**Bateragarritasun-adierazpenak**

Erakunde eskatzailea(k):

- Ez da laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin administrazio publikoen edo erakunde pribatuen eskutik.
- Administrazio publiko edo erakunde pribaturen bati laguntza eskatu dio xede eta helburu berarekin eta eman egin dio (atal honetako datuak Eranskinean zehaztu beharko dituzu).
- Administrazio publiko edo erakunde pribaturen bati laguntza eskatu dio xede eta helburu berarekin, baina erantzunaren zain dago (atal honetako datuak Eranskinean zehaztu beharko dituzu).

Berriazko adierazpenak

Erakunde eskatzailea(k):

- **Erakunde eskatzaileak ez duela %25 edo gehiagoko udal finantziarioa jasotzen.**
- Diru-laguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatuz gero, horren berri emateko konpromisoa hartzen dut.

Bestelako adierazpenak

Aitortzen dut:

- Erakunde eskatzailea(k):
 - Ez dauka diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor penal edo administratiborik.
 - Ez dago diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko gaitasunik gabe uzten duten lege-debekuen eraginpean, beren-beregi sexu-diskriminazioagatiko¹ lege-debekuen eraginpean.
 - Egunean ditu indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, araz zehaztu bezala².
 - Betetzen ditu indarreko legediak laguntza hauek jasotzeko ezarritako baldintzak.
- Benetakoak dira eskabide honetan eta erantsitako dokumentuetan jasotako datuak.

¹ Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak seigarren azken xedapenean dioenaren arabera.

² 1/1997 Dekretuaren arabera, deialdia kudeatzen duen organoak berriazko baimenik gabe egiaztatu ahal izango du erakunde eskatzaileak egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

_____ (e)n _____ (e)an
(Tokia) (Data)

(Ordezkararen sinadura)

Eskabidea osatzeko argibideak

Eskatzailea

Zure izenean ari bazara:

- *Eskatzailea* atalean, aukeratu ezazu *Titularra*.
- *Datu pertsonalak* atalean, bete itzazu *titularrari* dagozkion datuak.
- Sina ezazu eskabidea.

Beste pertsona baten ordezkari gisa ari bazara:

- *Eskatzailea* atalean, aukeratu ezazu *Ordezkaria*.
- *Datu pertsonalak* atalean, bete itzazu ordezkatzeko duzun pertsonaren datuak *Titularra* atalean, eta zureak *Ordezkaria* atalean.
- Sina ezazu eskabidea.

Erakundeak beti ordezkari baten bidez aritzen dira, hortaz:

- *Eskatzailea* atalean, aukeratu ezazu *Ordezkaria*.
- *Datu pertsonalak* atalean, bete ezazu *Titularra* atala erakundearen datuekin eta *Ordezkaria* atala zure datuekin.
- Sina ezazu eskabidea.

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

Jakinarazpen eta komunikazioak jasotzeko, aukera hauek dituzu:

Posta bidezkoa: *Posta bidezkoa* atalean jarri duzun helbidera igorriko dira.

Elektronikoa: [Nire kudeaketak](#) guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Han sartzeko, [onartutako ziurtagiri elektronikoa](#) bat izan behar duzu.

Oharra: 10 eguneko epea duzu jakinarazpena sartzeko; bestela, jakinarazpena errefusatzat joko da, izapidea egintzat emango da eta prozedurak aurrera egingo du.

2014ko azaroaren 12a, asteazkena



III. ERANSKINA

ARAUTU GABEKO IRAKASKUNTZA.

MUSIKA ESKOLAREN IRAKASLEEN ZIURTAGIRIA.

Zentroaren izena: _____

I Baremorako:

Irakasleen zerrenda 1,2,3 4, eta beste ikasketa batzuetan laguntza har dezaketen ikasleei ematen dieten klaseen kopuruarekin. (irakasle bat lerro bakoitzean).

Oduak mailaka													
		1		2		3		4		Beste irakaskuntzak		Ordu guztiak	
	Izen abizenak	Ord.	Min.	Ord.	Min.	Ord.	Min.	Ord.	Min.	Ord.	Min.	Ord.	Min.
1													
	Guztira												
Guztira minututan													

Irakas denbora zuzena, irakasle bakoitzari bere irakaskuntzetan kurtso osorako dagozkion ikasleei ematen dien denbora, izan behar da.

2014ko azaroaren 12a, asteazkena



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hezkuntza Sailburuordetza
Ikastetxeen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Educación
Dirección de Centros Escolares

IV. ERANSKINA ARAUTU GABEKO IRAKASKUNTZA. LEHENTASUNA DUTEN ESPEZIALITATEENTZAKO LAGUNTZA. ERREGIMEN ARRUNTA.

Zentroaren izena: _____

I Baremorako:

Tresnaka sailkatuta.

Lehentasuna daukaten espezializateak bakarrik	2. maila	3. maila	Guztira
Biola			
Biolontxelo			
Kontrabaxua			
Fagota			
Oboea			
Tronpa			
Tronboia			
Tuba			
Arpa			
Guztira			

Tresna bi edo gehiago egiten duten ikasleak bakarrik leku batean ager daitezke.

2014ko azaroaren 12a, asteazkena



V. ERANSKINA
ARAUTU GABEKO IRAKASKUNTZA.
LAGUNTZA BEREZIA HARTZEN DUTEN IKASLEAK ETA HAIEN
ESPEZIALITATEAK.

Zentroaren izena: _____

I Baremorako:

Lehentasuna daukaten espezialitateak x baten bidez adieraziko dira:

Izen-abizenak	2. maila	3. maila	4. maila	Adina	Espezialitatea	Lehen.	Urtea
	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>			<input type="checkbox"/>	_____
Guztira	0	0	0				

Ikaslearen izen-abizenak eta adina adieraziko dira, baita ere matrikulatuta dagoen maila (x baten bidez) , espezialitatea eta zenbat urte darama erreforzatu gisa (1 edo 2).

Nahiz eta bakarrik 2. eta 3. mailan dauden ikasleak finantziatu, ikasle erreforzatu guztien izenak agertu behar dira Ikastetxeen zuzendaritzatik dokumentu honen kopia bat helaraziko zaiolako ikuskaritzari.

2014ko azaroaren 12a, asteazkena



VI. ERANSKINA
ARAUTU GABEKO IRAKASKUNTZA.
IKASLEAK IRAKASKUNTZA ARAUTUAN SARTZEA
(IKASKETA PROFESIONALAK).

Zentroaren izena: _____

I Baremorako:

2013-14ko ikasturtean ikasketa profesionaletan izena eman duten ikasleen zerrenda:

	Izen-abizenak	Irakaskuntza profesionaletako ikastetxe arautu honetan izena eman dutenak	Kurtsoa	Espezialitatea
1				

2014ko azaroaren 12a, asteazkena



VII. ERANSKINA

ARAUTU GABEKO IRAKASKUNTZA. APLIKAZIORAKO DATUEN LABURPENA. (I BAREMO)

Zentroaren izena: _____

2013-2014ko ikasturtea

1.- Musika-eskolaren irakasleak

Datu hauek "Musika-eskolako irakasleak" izeneko ziurtagiritik aterata(III. eranskina):

Orduak mailaka												
	1		2		3		4		Beste irakaskuntza batzuk		Ordu guztiak	
	Ord.	Min.	Ord.	Min.	Ord.	Min.	Ord.	Min.	Ord.	Min.	Ord.	Min.
Guztira												
Irakasle guztientzako klaseen kopuru osoa, minututan												

"Orduak mailaka" zutabearen maila bakoitzean ematen diren klaseen kopurua osoa adieraziko da.

2.- Musika-eskolako ikasleen datu orokorrak

Ikasle batek 2., eta 3. mailatan espezialitate bat baino gehiago egiten duenean, zenbatzeko orduan, hauetako bat bakarrik kontuan hartuko da.

Ikasle batek talde jarduera bat baino gehiagotan parte hartuz gero, zenbatzeko orduan, hauetako bat bakarrik kontuan hartuko da.

1. mailan:

	Ikasleen kopurua
Urte naturalean 5 urte edo gutxiago duten ikasleak	
Urte naturalean 6 edo 7 urte duten ikasleak	
1. mailan guztira	

2014ko azaroaren 12a, asteazkena

2. mailan:

	ikasleen kopurua
Hastapeneko kurtsoa(sartze zuzenak)	
Musika-tresna edo bakarkako kantua kurtso guztietan. Ohiko matrikulazioa bakarrik.	
Maila honetan musika-tresna edo bakarkako kantuan matrikulatutako ikasleen %15ek jasoko du laguntza berezia gehienez ere.	
Koru-kantua irakasgai nagusizat. 1. kurtsoan	
Koru-kantua irakasgai nagusizat beste kurtso guztietan	
Dantza tradizionala, bakarrik. 6 kurtso gehienez.	
Bi espezialitate egiten duten ikasleak (kopuru osoaren %10 gehienez ere)	
2. mailan guztira	

3. mailan:

	ikasleen kopurua
Musika-tresna edo bakarkako kantua, 6 kurtso gehienez ere. Ohiko matrikulazioa bakarrik.	
Talde-jarduerak soilik, 6 kurtso gehienez ere.	
Maila honetan, musika-tresna edo bakarkako kantuan matrikulatutako ikasleen %10ek jasoko du laguntza berezia, gehienez ere.	
Dantza tradizionala bakarrik, 6 kurtso gehienez ere.	
Bi espezialitate egiten duten ikasleak (kopuru osoaren %10 gehienez ere)	
3. mailan guztira	

4. mailan:

	ikasleen kopurua
Talde-jarduerak soilik	
Ohiko matrikulazioan: musika-tresna edo bakarkako kantua (kopuru osoaren %10 gehienez ere)	
4. mailan guztira	

Beste ikasketa edo jarduera batzuk:

	ikasleen kopurua
14 urteak arteko minusbaliatuak	
14 urtetik gorako minusbaliatuak	
Jarduera honetan guztira	

3.- Lehenasuna duten espezialitateentzako laguntza

Datu hauek honako agiri hauetatik aterata:

- Lehenasuna duten espezialitateentzako laguntza /erregimen arrunteko ikasleak (IV. eranskina) eta
- Laguntza berezia hartzen duten ikasleak eta haien espezialitateak (V. Eranskina):

	Ikasleen kopurua
Lehenasuna daukaten musika-tresnak ikasten dituen ikasleak, or ohar	
Lehenasuna daukaten musika-tresnak ikasten dituen ikasleak, eta laguntza berezia hartzen dutenak izanik	

4.- Ikasleak irakaskuntza arautuan sartzea (ikasketa profesionalak)

Datu hauek honako agiri honetatik aterata:

- Ikasleak irakaskuntza arautua sartzea (VI. Eranskina):

	Ikasleen kopurua
2013-14ko ikasturtean ikasketa profesionaletan izena eman duten ikasleak.	

2014ko azaroaren 12a, asteazkena



VIII. ERANSKINA ARAUTUTAKO IRAKASKUNTZA. IRAKASLEEN ZIURTAGIRIA.

Zentroaren izena: _____

II Baremorako:

Irakasleen zerrenda adierazi behar da finantza daitezkeen ikasleei ematen dizkieten klaseen kopuruarekin zein oinarrizko irakaskuntzan zein ikasketa profesionaletan (irakasle bakoitza lerro batean).

Orduak graduka							
	Izen-abizenak	Oinarrizkoak		Profesionalak		Ordu guztiak	
		Ord.	Min.	Ord.	Min.	Ord.	Min.
1							
	Guztira						
Guztira minututan							

Lerro bakoitzean irakasle baten izen-abizena adieraziko da bere ikasturte osorako ikasleei ematen dizkien klaseen kopuruarekin.

2014ko azaroaren 12a, asteazkena

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hezkuntza Sailburuordetza
Ikastetxeen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Educación
Dirección de Centros Escolares

IX. ERANSKINA ARAUTUTAKO IRAKASKUNTZA. LEHENTASUNA DUTEN ESPEZIALITATEENTZAKO LAGUNTZA.

Zentroaren izena: _____

II Baremorako:

Oinarrizko irakaskuntzetan ikasleen kopurua:

Lehentasuna duten espezialitateak	1. kurtsoa	2. kurtsoa	3. kurtsoa	4. kurtsoa	Guztira
Biola					
Biolontxelo					
Kontrabaxua					
Fagota					
Oboea					
Tronpa					
Tronboia					
Tuba					
Arpa					
Guztira					

Ikasketa profesioaletan ikasleen kopurua:

Lehentasuna duten espezialitateak	1.	2.	3.	4.	5.	6.	Guztira
Biola							
Biolontxelo							
Kontrabaxua							
Fagota							
Oboea							
Tronpa							
Tronboia							
Tuba							
Arpa							
Guztira							

2014ko azaroaren 12a, asteazkena

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hezkuntza Sailburuordetza
Ikastetxeen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Educación
Dirección de Centros Escolares

X. ERANSKINA ARAUTUTAKO IRAKASKUNTZA. IKASLEAK GOI MAILAKO IRAKASKUNTZAN SARTZEA.

Zentroaren izena: _____

II Baremorako:

2013-14ko ikasturtean Goi-mailako zentro batera sartu diren ikasleen zerrenda:

	Izen-abizenak	Goi-mailako zentroaren izena	Maila	Espezialitatea
1				

2014ko azaroaren 12a, asteazkena



XI. ERANSKINA ARAUTUTAKO IRAKASKUNTZA. APLIKAZIORAKO DATUEN LABURPENA.

Zentroaren izena: _____

2013-2014ko ikasturtea

II Baremorako:

1.- Irakasleak: ematen diren klaseen kopuru osoa (oinarrizko irakaskuntzetan eta irakaskuntza profesionaletan)

Datu hauek "Irakasleak" izeneko ziurtagiritik aterata (VIII Eranskina):

Guztira	Orduak graduka				Orduak guztira	
	Oinarrizkoak		Profesionalak		Orduak guztira	
	Ord.	Min.	Ord.	Min.	Ord.	Min.
Irakasle guztientzako klaseen kopuru osoa, minututan						

"Orduak graduka" zutabearen gradu bakoitzean ematen diren klaseen kopurua osoa adieraziko da.

2.- Araututako irakaskuntzen ikasleen kopurua

Ikasle batek espezialitate bat baino gehiago eginez gero, zenbatzeko orduan, hauekiko bat bakarrik kontuan hartuko da.

	Ikasleen kopurua
Matrikulatuta dauden ikasleen kopurua. OINARRIZKO MAILA GUZTIRA	
1. mailan matrikulatuta dauden ikasleen kopurua	
2. mailan matrikulatuta dauden ikasleen kopurua	
3. mailan matrikulatuta dauden ikasleen kopurua	
4. mailan matrikulatuta dauden ikasleen kopurua	
5. mailan matrikulatuta dauden ikasleen kopurua	
6. mailan matrikulatuta dauden ikasleen kopurua	
IKASKETA PROFESIONALETAN GUZTIRA	
Guztira OINARRIZKO + PROFESIONALAK	

3.- Lehentasuna duten espezialitateak

Datu hauek honako agiri honetatik aterata:

- Lehentasuna duten espezialitateentzako laguntza(IX Eranskina):

	Ikasleen kopurua
Lehentasuna daukaten tresnak ikasten duten ikasleak, oinarrizko irakaskuntzan	
Lehentasuna daukaten tresnak ikasten duten ikasleak, ikasketa profesionaletan	

4.- Goi-mailako ikasleak sartzea

Datu hauek honako agiri honetatik aterata:

- Ikasleak goi-mailako irakaskuntzan sartzea (X Eranskina):

	Ikasleen kopurua
2013-14ko ikasturtean ikasleak musikako goi-mailako zentro batean sartzea	

2014ko azaroaren 12a, asteazkena

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hezkuntza Sailburuordetza
Ikastetxeen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Educación
Dirección de Centros Escolares

XII. ERANSKINA ARAUTUTAKO ETA ARAUTU GABEKO IRAKASKUNTZA. AURREKONTUAREN ZIURTAGIRIA.

Zentroaren izena: _____

III Baremorako:

Irakaskuntzako kostuak:

2013ko ekitaldiko gastu arruntaren balantze xehatua:

Langileak	Zenbat pertsona	Gastuen guztira
Irakasleak		
Irakasleak ez diren langileak		
Langileen subtotala		
Gainerako gastu arruntak		
Ekipamendua		
Funtzionamendua		
Ekip-funtzion subtotala		
Guztira		

2014ko azaroaren 12a, asteazkena



XIII. ERANSKINA

ARAUTUTAKO ETA ARAUTU GABEKO IRAKASKUNTZA. UDAL FINANTZIAZIOAREN ZIURTAGIRIA.

Zentroaren izena: _____

IV Baremorako:

Diru-laguntza eskatzen duenak, honen bidez ziurtatzen du, _____ udal honek 2013ko urtean, azken deialdian Hezkuntza Saitetik eskuratutako diru-laguntza kenduta, _____ euroko kopurua eman ziola _____ izeneko musika-eskolari/ edo _____ izeneko kontserbatorioari gastu arruntetarako.

Kopuru hori % _____ da, zentro horretako aurrekontu orokorrari dagokionez.

Mankomunitateentzat:

Diru-laguntza eskatzen duenak, honen bidez ziurtatzen du, _____ udal hauek 2013ko urtean, azken deialdian Hezkuntza Saitetik eskuratutako diru-laguntza kenduta, guztira _____ euroko kopurua eman ziotela _____ izeneko musika-eskolari/ edo _____ izeneko kontserbatorioari gastu arruntetarako.

Kopuru hori, guztira, % _____ da, zentro horretako aurrekontu orokorrari dagokionez.

2014ko azaroaren 12a, asteazkena



XIV. ERANSKINA LANGILEEN KOSTUEN JUSTIFIKAZIOA

Zentroaren izena: _____

2014ko ikasterterako emandako diru-laguntza: _____ euro.

Honekin batera eskola / kontserbatorio / baimena daukan zentroan lan egiten duten zerrenda adierazi da. _____

_____ Zentroaren NPZa hau da _____ .

Taula honetan ere ordainsari gordinak eta Gizarte Segurantzaren kostuak, 2014ko urteari dagozkionak, adierazten dira.

Abizenak eta izena	Ordainsariak	Enpresako Gizarte Segurantzaren kostuak	Guztira
Guztira			